

Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan Zentsuetan eta Erroldan jasotako datuen arabera

Jose M^a Agirre Eskisabel

Euskaldunek nahiz ia-euskaldunek igoera nabaria izan dute azken hamarkadan. Nola euskaldunetan hala ia-euskaldunetan, alfabetatuak izan dira igoerarik bizkorrena lortu dutenak. Adin talde gazteenek dituzte euskaldun eta ia-euskaldun portzentaiarik gorenak, eta %23raino jaisten dira erdaldun elebakarrak belaunaldi batzuetan. Gero eta gehiago dira ama hizkuntza, gaztelania duten euskaldunak eta ia-euskaldunak, euskara familiarik kanpo ikasten dutenak. Badirudi hamarkadaren bigarren zatian euskalduntzearen abiada zerbait baretu dela, biztanlerian oro har, baina ez da horrelakorik gertatzen adin talde gazteenetan.

The number of Basque-speakers as well as quasi-Basque-speakers has increased noticeably during the last decade. Among Basque-speakers as well as quasi-Basque-speakers, those who have become literate are the ones who have shown the greatest increase. The highest rates of Basque-speakers and quasi-Basque-speakers are found in the youngest age brackets. Basque-speakers and quasi-Basque-speakers whose mother tongue is Spanish and who have learnt Basque outside of the home are on the increase. During the second half of the decade the rate seems to have slowed down in the population as a whole but that is not the case in the youngest age brackets.

Sarrera

Hiru une edo data berezi ditugu Euskal Autonomi Elkartearen euskararen azken urteotako bilakaera aztertzeko garaian: 1981eko Zentsua (abiapuntu bezala), 1986ko Errolda (jarraipen modura) eta 1991ko Zentsua (azken neurketa hurbilena). Izan ere 1981eko Zentsua egiterakoan jarri ziren lehen aldiz euskararen ezagutza neurtzeko oinarriak eta sistematikoki jarraitzeko bideak. Jaurlaritzako orduko Estatistika Zuzendaritzak, gerora Eustat bilakatuko zenak, euskararen ezagutzari buruzko galdera batzuk sartu zituen, eranskin bezala, Zentsuaren galdesortan eta ekimen horri eskerrak erabil ditzakegu gaur esku artean ditugun datuak. Gauza bera egin zen 1986ko Erroldan, lehenago aipatutako galderez gain, ama hizkuntzari buruzko berriak erantsiz. Era berean 1991ko Zentsuan ere aurreko galderak bere hartan gorde ziren gonbaragarri gerta zitezen, baina etxeko erabilpena aztertze-ko informazio gehigarria eskatuz. Beraz, euskararen ezagutzari buruzko datuek hiru denboraldi ezberdinetako egoera jaso dute, galdera eta metodo berdinez burutuak direnez, denboraldi bat bestearekin gonbaratzeko gaitasuna galdu gabe. Ama hizkuntzari dagozkion datuak, aldiz, bi unetan soilik dira gonbaragarri: 1986 eta 1991an. Etxeko erabilera informazioa 1991an bakarrik bildu zen eta ezin da, ez dagoelako iturri berdineko daturik, aurrekoekin alderatu.

«Euskararen ezagutzari buruzko datuek hiru denboraldi ezberdinetako egoera jaso dute, galdera eta metodo berdinez burutuak direnez, denboraldi bat bestearekin gonbaratzeko gaitasuna galdu gabe»

Euskararen ezagutzari buruz 1981ean sartutako galderak garai hartakoak dira, noski, eta gaurko eskarmenturik gabe osatuak. Berriz ere hasi beharko bagenu agian aldaketa edo zuzenketaren bat egingo litzaieke, baina nire ustez hobe da galdera horiei beren hortan eustea, gonbaragarritasunik gal ez dezaten, eta beste galdera osagarri batzuk eranstea, ahal den neurrian, informazio zehatzagoa eta aberatsagoa lor dezagun.

Nafarroan 1986ko Erroldan hasi ziren, lehen aldiz, galdera berdina egiten eta 1991ko Zentsuan ere bide beretik jarraitu zuten. Euskal Autonomi Elkartearen eta Nafarroako datuak nahiko gonbaragarri dira, gutxienez, galdera aldetik, 86-91ko epean.

Iparraldeko Zentsu eta Erroldetan ez da inoiz euskarari buruzko daturik bildu; nahiz eta beste inkesta mota bateko datuak ezagutzen diren, iturri berdineko ez dugu oraingoz.

Datuak ematerakoan bi sailkapen erabiltzen ditu Eustatek euskara-maila orokorrari buruzko informazioa metatzen duenean. Lehenengoan hiru talde erabili ohi dira: Euskaldunak,

ia-euskaldunak eta Erdaldunak. Bigarrenean hiru euskaldun mota (alfabetatuak, partzialki alfabetatuak eta alfabetatugabeak) eta beste hiru ia-euskaldun mota (alfabetatuak, alfabetatugabeak eta pasiboak). Zein da euskaldun taldearen ezaugarri nagusia eta zein ia-euskaldunena? Nola definitzen da talde bakoitza? Zehatz ditzagun, labur bederen, hiru multzo nagusien berezitasunak.

Euskaraz *ondo hitz egin eta ongi ulertzen* dutenek osatzen dute euskaldunen multzoa, beraz hemen sailkatzen dira ongi, nekez edo batere irakurri ala ez; ongi, nekez edo batere idatzi ala ez, *ondo hitz egin eta ulertzen dutela* dioten guztiak.

Nekez hitz egin eta ongi edo nekez ulertzen dutenek osatzen dute ia-euskaldunen taldea, nahiz eta ongi, nekez edo batere ez irakurri eta /edo ongi, nekez edo batere ez idatzi.

Batere hitz egin ez eta nekez ere ulertzen ez dutenek osatzen dute erdaldunen multzoa. Hauek ez dute hitz egiten, ez dakite, eta ez dute deus ulertzen.

Definizio eta metodo arazoen aipamena amaitu baino lehen beste xehetasun bat ere azpimarratu nahi nuke. Eustatek bildu dituen datuak informatzaileari zor zaizkio eta honen aitortpena da (bere buruaz eta bere familikoetaz) informazioaren oinarri. Informatzaileak baloratzen ditu, bada, hein handi batean euskararen ezagutza-maila ezberdinak, eta estatistika zuzenketak hutsuneak betetzeko eta koherentzia emateko bakarrik egin dira. Bestalde esan beharra dago 1981ean, 1986ean eta 1991an sistema bera erabili zela informazioa eskuratzean, datuak erabiltzean eta metodoak ezartzean, eta hortan datza, nik uste, datuen gonbaragarritasuna eta balioetasuna. Komeni da, ordea, irizpide metodologiko guzti hauek kontutan izatea emaitzak aztertu, interpretatu eta ondorioak ateratzeko orduan.

Orain arte esandakoak kontutan hartu beharrekoak dira datuen erabilera egokia egin nahi bada, baina baita ere baieztatu daitezke Zentsuetan eta Erroldan jasotako datu hauek nahiko zutabe sendoa eta tinkoa dutela adierazten dutena adierazteko. Baliagarriak dira, batez ere, euskararen bilakera jarraitzeko, hizkuntz talde bakoitzaren segimena egiteko.

Hamar urteko balantze osoa burutzea luze gertatuko litzaiteke. Haatik nondik-norako garrantzitsuenak, garapen arlorik nabarrienak eta ezaugarri berezianak azpimarratzen saiatuko naiz ondorengo lerroetan.

«Eustatek bildu dituen datuak informatzaileari zor zaizkio eta honen aitortpena da (bere buruaz eta bere familikoetaz) informazioaren oinarri. Informatzaileak baloratzen ditu, bada, hein handi batean euskararen ezagutza-maila ezberdinak»

Euskaldunek eta ia-euskaldunek gora egin dute 1981etik 1991ra

Hamar urteren buruan 448.156tik 543.617ra igo da euskaldunen kopurua Euskal Autonomi Elkartearen, guztira 95.461 euskaldun gehiago zegoen 1991an 1981ean baino. Beraz, biztanleriaren %21,5 izatetik %26,3ra heldu da euskaldunen portzentaia.

«Euskal Autonomi Elkartearen, guztira 95.461 euskaldun gehiago zegoen 1991an 1981ean baino»

Ia-euskaldunak 109.651 gehiago dira, 300.885 ziren 1981ean eta 410.536 hamar urte geroago, biztanleriaren %14,5etik %19,8ra igoz. Talde honen igoera euskaldunena baino handiagoa izan da.

Ondorioz erdaldunak, hots, euskaraz ez dakitenak (gorago aipatutako definizioaren arabera) 217.646 gutxiago dira, biztanleriaren %64tik %53,9ra jaitsi direlarik. Erdaldunen gutxitzea (-217.646) euskaldunen eta ia-euskaldunen gehitzea (+205.112) baino handiagoa izan da, bi urte eta gehiagokoen biztanleriak 12.534 pertsona galdu dituelako.

Nafarroari dagokionez ez dugu hamarkada osoan gertatutakoa aztertzeko aukerarik, sarreraren genion arrazoigatik, baina badaukagu 1986tik 1991ra emandakoaren berri. Bost urteko epean 1.070 euskaldun eta 4.098 ia-euskaldun gehiago agertu dira.

«Nafarroari dagokionez ez dugu hamarkada osoan gertatutakoa aztertzeko aukerarik, baina badaukagu 1986tik 1991ra emandakoaren berri. Bost urteko epean 1.070 euskaldun eta 4.098 ia-euskaldun gehiago agertu dira»

Ondorengo Taula 1ean ditu irakurleak 4 lurraldeetako hiru hizkuntz talde nagusien datuak, nola zenbaki absolutuetan hala portzentaian.

Taula 1ean ikus daitekeenez lurralde guztietan gora egiten dute euskaldunek eta ia-euskaldunek, eta tamaina berdintsuan beheraka erdaldunek. Azken hauek 15 puntu jaitsi dira Arabako biztanlerian, %11 gutxiago dira Bizkaian, %7 gutxiago Gipuzkoan eta %1 gutxiago Nafarroan. Euskaldun nahiz ia-euskaldunen igoera hori, gainera, Euskal Autonomi Elkarte herri gehienetan gertatu da eta fenomeno zabal eta orokor bezala agertzen zaigu, salbuespen batzuk aparte.

Igoera honen abiada ez da berdina izan lurralde guztietan, ezta ere multzo guztietan, baina irakurleak berak ere azter ditzake xehetasun horiek denak. Gainera, badirudi igoeraren erritmoa zerbait txikiagoa dela, lurralde eta multzo gehienetan azkeneko (86-91) bost urtealdian aurreko (81-86) epealdian baino. Gero itzuliko gara arazo hau hurbilago sakontzera.

Hizkuntza Gaitasunaren Bilakaera

(1. Taula)

	1981		1986		1991	
	zbk.	%	zbk.	%	zbk.	%
ARABA						
Euskaldunak	9.693	3,9	17.424	6,7	22.995	8,6
Ia-euskaldunak	23.797	9,5	43.997	16,8	53.581	20,0
Erdaldunak	216.302	86,6	199.807	76,5	190.981	71,4
Bi urte eta gehiagoko biztanleria	249.797	100	261.228	100	267.557	100
BIZKAIA						
Euskaldunak	171.684	14,9	201.709	17,5	215.219	18,9
Ia-euskaldunak	154.722	13,4	205.696	17,8	233.264	20,5
Erdaldunak	829.372	71,8	746.584	64,7	687.875	60,6
Bi urte eta gehiagoko biztanleria	1.155.778	100	1.153.989	100	1.136.358	100
GIPUZKOA						
Euskaldunak	266.779	39,5	294.891	43,7	305.409	45,9
Ia-euskaldunak	122.368	18,1	114.423	17,0	123.691	18,6
Erdaldunak	286.746	42,4	265.664	39,4	235.918	35,5
Bi urte eta gehiagoko biztanleria	675.891	100	674.778	100	665.012	100
EUSKAL AUT. ELKARTEA						
Euskaldunak	448.156	21,5	509.819	24,6	543.617	26,3
Ia-euskaldunak	300.885	14,5	364.116	17,4	410.536	19,8
Erdaldunak	1.332.420	64,0	1.212.055	58,0	1.114.774	53,9
Bi urte eta gehiagoko biztanleria	2.081.461	100	2.089.995	100	2.068.927	100
NAFARROA						
Euskaldunak			50.953	10,1	52.023	10,3
Ia-euskaldunak			26.478	5,3	30.576	6,1
Erdaldunak			424.558	84,6	420.431	83,6
Bi urte eta gehiagoko biztanleria			501.989	100	503.030	100

Euskaldun alfabetatuennagusitasuna

Euskaldun eta ia-euskaldunen multzoek hazkuntza nabaria izan dutela bistan badago ere ezin dira ahaztu talde horietako bakoitzak bere baitan dituen azpimultzoak. Euskaldun alfabetatuak euskaldunen %46,5 izatetik %67,8ra igo dira, 543.617 euskaldunetatik 368.921 euskaldun alfabetatuak izanik. Euskaldunen %68ak alfabetatuak dira, hots, euskaraz ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenak. Hemen dago dudarik gabe Euskal Herrian sekula izan ez den bezalako euskaldun alfabetatuen kopurua, hitz egiteko ezezik irakur-tzeko eta idazteko ere gai dena, zentsu zabal batean.

Partzialki alfabetatutako euskaldunak (ondu ulertu eta hitz egin arren nekez irakurri eta/edo idazten dutenak) eta alfabetatugabeak gero eta gutxiago dira ondorengo taula 2an ikus dezakegunez. Lehenengoak 17 puntu jaitsi dira eta bigarrenak 5.

Euskaldunen eta ia-euskaldunen bilakaera euskararen maila globalaren arabera 1981-1991

(2. Taula)

	1981		1986		1991	
	zbk.	%	zbk.	%	zbk.	%
GUZTIRA	2.076.448		2.089.995		2.068.927	
EUSKALDUNAK	447.776	100	513.824	100	543.617	100
Alfabetatuak	208.319	46,52	318.967	62,08	368.921	67,86
Partzialki Alfabetatuak	179.296	40,04	138.984	27,05	127.068	23,37
Alfabetatugabeak	60.161	13,44	55.873	10,87	47.628	8,76
IA-EUSKALDUNAK	300.394	100	364.116	100	410.536	100
Alfabetatuak	160.203	53,33	222.085	60,99	263.908	64,28
Alfabetatugabeak	84.110	28,00	76.560	21,03	72.262	17,60
Pasiboak	56.081	18,67	65.471	17,98	74.366	18,11
ERDALDUNAK	1.328.278		1.212.055		1.114.774	

Fenomeno bera gertatzen da ia-euskaldunen multzoan ere; alfabetatuak 11 puntu irabazi dituzte, %53,3tik %64,3ra pasatuz. Alfabetatuak 263.908 dira 410.536 ia-euskaldunen artean, multzo osoaren %64a osatuz. Alfabetatugabeak gutxitu egin dira eta pasiboak zerbait igo.

«632.829 "euskaldun alfabetatu" hauek irakurtzeko eta idazteko lain diren heinean, egundoko "masa kritikoa" osa dezakete, biztanleriaren %30a baitira»

Euskaldunetan eta ia-euskaldunetan hirutik bi (%68 eta %64) alfabetatuak dira jadanik eta badirudi euskalduna eta alfabetatua gero eta elkarri lotuago daudela.

Euskaldunen eta ia-euskaldunen garapena nabarmena izanik ez da motelagoa gertatu bi multzo hauetan alfabetatuak lortu duten hazkundera. Izan ere, 632.829 «euskaldun alfabetatu» hauek irakurtzeko eta idazteko lain diren heinean, egundoko «masa kritikoa» osa dezakete, biztanleriaren %30a baitira.

Adintalderik gazteenetaneuskaldunak erdaldunak baino gehiago dira

Taula 3an adierazten denez 5 eta 19 urte bitarteko adin taldean gehiago dira euskaldunak, baita ia-euskaldunak ere, erdaldun elebakarrak baino. Lehen aldiz gertatu da hori 1991an, aurreko beste bi uneetan ez bezala.

Euskaldunak eta Erdaldunak adinaren arabera

(3. Taula)

Adin taldea	Euskaldunak		Ia-euskaldunak		Erdaldunak	
	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%
5 - 9	46.368	40,7	34.186	30,0	33.378	29,3
10 - 14	59.510	37,3	62.658	39,3	37.260	23,4
15 - 19	53.645	29,7	74.332	41,2	52.361	29,0
20 - 24	44.266	25,1	54.588	31,0	77.462	43,9
25 - 29	42.699	24,5	37.502	21,5	94.424	54,1
GUZTIRA	543.617	26,4	410.536	19,8	1.114.774	53,8

20 eta 24 urte bitartekoen taldean euskaldunak eta ia-euskaldunak batu ezkerre gehiago dira oraindik erdaldunak baino, baina 25 urtetik gorakoetan nagusi dira erdaldunak nahiz eta beste bi multzoak elkartu.

Belaunaldi gazteenen hizkuntz sailkapena

(4. Taula)

Jaioturtea	Biztanleak	Euskaldunen	Ia-euskaldunen	Erdaldunen
	guztira	%	%	%
1985	20.270	38,35	26,66	34,99
1984	20.957	40,37	27,76	31,87
1983	22.545	41,40	29,54	29,06
1982	24.142	41,71	31,62	26,67
1981	26.018	41,24	33,33	25,42
1980	27.548	39,82	35,27	24,91
1979	29.664	38,99	37,86	23,15
1978	32.369	38,11	38,94	22,96
1977	33.822	36,32	41,09	22,59
1976	36.045	34,27	42,20	23,53
1975	36.339	32,28	42,63	25,09
1974	35.731	31,19	42,51	26,19
1973	35.787	30,43	40,99	28,58
1972	36.372	28,19	40,68	31,13
1971	36.109	26,66	39,28	34,06
1970	35.274	26,30	36,61	37,09
EAE GUZTIRA	2.068.927	26,28	19,84	53,88

«5 eta 19 urte bitarteko adin taldean gehiago dira euskaldunak, baita ia-euskaldunak ere, erdaldun elebakarrak baino»

Gainera O.H.O.ko azken urteetako ikasleen artean daude erdaldun elebakarren portzentaiarik haundienak. Beste era batean esateko O.H.O.ko 8garren mailan dauden 13 eta 14 urteko gazteetan %22,6 bakarrik dira erdaldun hutsak. Bestalde 8, 9 eta 10 urteko gazteak, O.H.O.ko 3, 4 edo 5garren mailan aurkitzen direnak erakusten digute euskaldun portzentaiarik gorakoena, %41etik pasatuz.

5 urtetik hasi eta 20 urte bitartekoen belaunaldiak agertzen dira goiko taulan, jaioturtez sailkaturik, eta adin talde bakoitzaren portzentaia hiru multzotan dago banatuta: euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak. Euskaldunak gehiago dira erdaldunak baino 5 urtetik 17ra bitartekoetan eta ia-euskaldunak dira talde nagusia 8 urtetik 19ra bitartean. Gainera euskaldunak ere gehiago dira ia-euskaldunak baino 5 urtetik 11rako tartean. Hogei urtetik gora hasten da nagusitzen erdaldunen taldea.

Euskaldunen eta ia-euskaldunen ama hizkuntza

Euskaldunen %71,1ek dute euskara, heuren ama hizkuntza, %8,3k euskara eta gaztelania, eta %20,6k gaztelania. Ama hizkuntza gaztelania dutenen portzentaia 1986ko %14,4tik %20,6ra igo da 1991an. Gero eta euskaldun gehiagok du ama hizkuntza gaztelania.

Euskaldunen ama hizkuntza

(5. Taula)

	1986		1991	
	Zbk.	%	Zbk.	%
EUSKALDUNAK	513.320	100	543.817	100
- Ama hizkuntza:				
Euskara	392.320	76,4	386.473	71,1
Erdara	74.079	14,4	111.866	20,6
Biak	47.425	9,2	45.278	8,3

Ia-euskaldunetan nabariagoa da oraindik, ama hizkuntza erdara dutenen portzentaia. Ehuneko 87,4 dira ama hizkuntza gaztelania dutenak ia-euskaldunen artean eta 1986tik aurrera 2 puntu igo da. Gertaera honen ondorioa bistan dago.

Gero eta gehiago dira euskara familiatik kanpo, batipat eskolan, ikasten dutenak.

Ia-euskaldunen ama hizkuntza

(6. Taula)

	1986		1991	
	Zbk.	%	Zbk.	%
IA-EUSKALDUNAK	364.116	100	410.536	100
- Ama hizkuntza:				
Euskara	26.012	7,1	29.691	7,2
Erdara	311.139	85,5	358.786	87,4
Biak	26.965	7,4	22.050	5,4

Taula 5 eta 6an argi dago gero eta gehiago direla, ama hizkuntza gaztelania izanik, maila batean edo bestean, euskara ikastera iritsi direnak. Ama hizkuntzaren garrantzia uka ezina da euskararen transmisiorako, hortan bat datoz adituak, baina guztiz urrats aipagarria da, familiatik kanpo euskara ikasi dutenena. Hemen ageri da nolabait euskaldun zahar eta berrien eragina, euskararen etorkizunean zer esanik izango duena. Elebitasunak berarekin dituen dinamika, kezka eta ardura guztiak sortarazten ditu gure gizartean hezur-mamitzen ari den fenomeno honek.

1981-1991 hamarkadako bi epealdiak

Hamarkadako bi epealdiak (81-86 eta 86-91) elkarrekin gonbaratzen baditugu, badirudi bigarreanean abiada motelagoa dela, bai euskaldunetan eta berdin ia-euskaldunetan. Taula 7an agertzen dira lurraldez lurralde bi epealdietako gorakadak biztanleriaren portzentaietan.

Nolanahi ere lehen ikuspegi kuantitatibo hori sakonago aztertzeak merezi du. Izan ere biztanleria osoari buruz ari gara gonbaraketak egiten eta gauza jakina da belaunaldi gazteenetan dagoela euskalduntze dinamikarik bizkorrena.

«8, 9 eta 10 urteko gazteak, O.H.O.ko 3, 4 edo 5garren mailan aurkitzen direnak erakusten digute euskaldun portzentaiarik gorakoena, %41etik pasatuz»

**Euskaldun eta ia-euskaldunen bilakaera biztanleriaren portzentaietan
(1981, 1986 eta 1991)**

(7. Taula)

	1981	1986	81-86 aldaketa	1991	86-91 aldaketa
ARABA					
Euskaldunak	3,9	6,7	2,8	8,6	1,9
Ia-euskaldunak	9,5	16,8	7,3	20,0	3,2
BIZKAIA					
Euskaldunak	14,9	17,5	2,6	18,9	1,4
Ia-euskaldunak	13,4	17,8	4,4	20,5	2,7
GIPUZKOA					
Euskaldunak	39,5	43,7	4,2	45,9	2,2
Ia-euskaldunak	18,1	17,0	-1,1	18,6	1,6
NAFARROA					
Euskaldunak	-	10,1	-	10,3	0,2
Ia-euskaldunak	-	5,3	-	6,1	0,8

Gainera gure biztanleria gutxitu egin da bigarren epealdian (86-91) eta oraingo gazteen belaunaldiak txikiagoak dira lehenagokoak baino, hau da, Euskal Autonomi Elkarteko biztanleria zahartzen ari da. Guzti hau kontutan hartu beharrekoa da bi epealdiak gonbaratu eta ondorioak ateratzerakoan.

Goazen bada datu horiek gertuagotik ikustera. Horretarako adin talde bakoitzaren bilakaera aztertuko dugu hamarkadako bi epealdietan.

Euskaldunen bilakera adin talde bakoitzaren portzentaietan

(8. Taula)

ADINA	EUSKALDUNAK		
	1981	1986	1991
5 - 9	20,1	29,0	40,7
10 - 14	19,4	26,2	37,3
15 - 19	18,6	23,3	29,7
20 - 24	19,0	23,4	25,1
25 - 29	18,6	22,9	24,5
30 - 34	19,2	20,9	22,6
35 - 39	19,0	21,1	20,7
40 - 44	19,8	20,6	20,8
45 - 49	21,6	21,0	20,2
50 - 54	24,2	22,9	20,8
55 - 59	26,5	25,4	22,4
60 - 64	30,0	27,9	25,1
65 - 69	31,9	31,2	27,8
70 - 74	33,2	32,8	30,8
75 eta gehiago	33,1	33,3	32,0
GUZTIRA	21,9	24,7	26,4

5 eta 9 urte bitartekoek hazkuntza erritmo biziagoa dute bigarren epealdian, 9 puntu lehenengoan eta 11 bigarrenean. Gauza bera gertatzen da 10 eta 14 urte bitartekoekin, 7 puntu igo dira lehenengoan eta 11 bigarrenean. 15 eta 19 urte bitartekoek ere 5 puntu eskas lehenengoan eta 6 pasatxo bigarrenean. Beraz, 5 eta 19 urte artekoetan biziagoa da bigarren epealdiko igoera euskaldunen multzoan. 20 urtetik gorako adin taldeetan motelagoa da bigarren epealdiko igoera eta behin 50 urte ezkerro jaitsi egiten da.

*«Gutziz urrats
aipagarria da,
familiaratik kanpo
euskara ikasi dutene-
na»*

Ia-euskaldunen multzoan nahasiago daude adin talde bakoitzaren aldakuntzak. Ondoren datorren taulan ikusi ahal izanen dugu, adinez adin eta epez epe, hauetako belaunaldi bakoitzaren joera. Izan ere biztanleria osoaren irudiak itzali egiten baitu talde dinamiko eta bizkorrenen eragina. Behin urte batzuk ezkerro gutxi dira euskara ikasteari ekiten diotenak eta biztanleria zahartzen den heinean astunago gertatzen da indar berritze hori.

Ia-euskaldunen bilakera adin talde bakoitzaren portzentaian

(9. Taula)

ADINA	IA-EUSKALDUNAK		
	1981	1986	1991
5 - 9	21,3	30,2	30,0
10 - 14	27,2	38,8	39,3
15 - 19	21,3	33,4	41,2
20 - 24	17,3	20,4	31,0
25 - 29	15,2	17,0	21,5
30 - 34	14,1	14,6	18,9
35 - 39	12,6	12,8	16,0
40 - 44	10,2	10,8	13,0
45 - 49	9,2	8,7	10,7
50 - 54	8,4	7,7	8,5
55 - 59	8,2	7,0	7,6
60 - 64	7,5	6,8	6,9
65 - 69	7,2	6,4	6,5
70 - 74	6,5	5,8	6,4
75 eta gehiago	5,5	5,1	5,6
GUZTIRA	14,6	17,5	19,6

5 eta 9 urte bitartekoetan eta 10etik 14 urtera artekoetan ez da igoera nabarmenik agertzen bigarren epealdian, lehenen-

«Hamarkadako bi epealdiak (81-86 eta 86-91) elkarrekin gonbaratzen baditugu, badirudi bigarrenen abiada motela-goa dela, bai euskaldunetan eta berdin ia-euskaldunetan»

goan 9 eta 11 puntutakoa izan arren. 1986ko portzentaia berdina mantentzen dute 1991n. Aztertu beharreko azalpenen bat egongo da gertaera horren azpian. Gainerako adin talde guztiek franko hazten dira, portzentaia beti, bigarren epealdian, batipat 15etik 49 urtera bitartekoek. Hauetako adin talde gehienak gehiago hazten dira bigarren bostaldian. Agian mereziko luke euskaldunen eta ia-euskaldunen arteko harremanak denboran zehar aztertzeak, batetik bestera zenbaterainoko joan-etorria dagoen neurtzeko, edota uste baino independenteagoak ote diren jakiteko.

Beste irakurketa mota bat ere egin daiteke, ariketa moduan, eta zera da, belaunaldi bakoitzaren segimena egitea lehengo bi multzoetan. Zein izan da 1981ean 5etik 9 urte zituztenek izan duten bilakaera; hau da, 1975 eta 1971 bitartean jaiotakoena?. Ondorengo tauletan ikus daiteke nola bilakatu den adin-talde bakoitza bi epealdi horietan, irakurketa longitudinala eginez.

1981eko euskaldunen bilakaera

(10. Taula)

JAIOTURTEAK	EUSKALDUNAK		
	1981	1986	1991
1985-1981	-	-	40,7
1980-1976	-	29,0	37,3
1975-1971	20,1	26,2	29,7
1970-1966	19,4	23,3	25,1
1965-1961	18,6	23,4	24,5
1960-1956	19,0	22,9	22,6
1955-1951	18,6	20,9	20,7
1950-1946	19,2	21,1	20,8
1945-1941	19,0	20,6	20,2
1940-1936	19,8	21,0	20,8
1935-1931	21,6	22,9	22,4
1930-1926	24,2	25,4	25,1
1925-1921	26,5	27,9	27,8
1920-1916	30,0	31,2	30,8
1915 eta lehenago	32,7	33,1	32,0
GUZTIRA	21,9	24,7	26,4

1981eko ia-euskaldunen bilakaera

(11. Taula)

JAIOTURTEAK	IA-EUSKALDUNAK		
	1981	1986	1991
1985-1981	-	-	30,0
1980-1976	-	30,2	39,3
1975-1971	21,3	38,8	41,2
1970-1966	27,2	33,4	31,0
1965-1961	21,3	20,4	21,5
1960-1956	17,3	17,0	18,9
1955-1951	15,2	14,6	16,0
1950-1946	14,1	12,8	13,0
1945-1941	12,6	10,8	10,7
1940-1936	10,2	8,7	8,5
1935-1931	9,2	7,7	7,6
1930-1926	8,4	7,0	6,9
1925-1921	8,2	6,8	6,5
1920-1916	7,5	6,4	6,4
1915 eta lehenago	6,4	5,4	5,6
GUZTIRA	14,6	17,5	19,6

Euskaldunen multzoan, 1981ean 5-9, 10-14 eta 15-19 urte zituzten taldeek ez dute lehenengo epealdiko igoera mantendu bigarreanean, nahiz eta hazten jarraitu, igoera-tasa txikiago batean. Hortik gorako adin taldeetan ez dago progresiorik, gainera zerbait jaitsi egiten da biztanleriaren murriztea dela medio edo. Hemen ere balego zer aztertu.

Ia-euskaldunetan berriro ere joera nahasiagoak agertzen dira. Bigarren epealdian ere gora egiten dute 1981ean 5 eta 34 urte bitartean zituztenek eta, gainera, hazkuntza hori handiagoa da bigarren epealdian (86-91) 15 eta 34 urte bitartekoetan, aurreko bostaldian baino.

Agian korapilotsuegiak gerta daitezke lerro hauetan jorratutako gaiak. Izan ere horietako askok azterketa sakonagoa eskatzen dute. Badago datu guzti horien artean zer ikertu, baina ezin da ahaztu hizkuntza baten dinamika ez dela soilik datuz neurtzen, datuek lagungarri behar dute izan, fenomenoak azaltzen eta interpretatzen lagundu behar digute.

«Biztanleria osoaren irudiak itzali egiten du talde dinamiko eta bizkorrenen eragina»

«Belaunaldi gazteenak dira hazkuntza horren eragile. Erdaldun elebakarrak %23raino jaitsi dira 1977 eta 1978an jaiotakoen artean»

Ondorio gisa

- 1.- Datuak erabiltzean nahitaez kontutan eduki behar dira arlo metodologikoak. Definizioak, informazioaren balioa eta gainerako irizpide teknikoak.
- 2.- Euskaldunen eta ia-euskaldunen igoera guztiz nabaria eta sendoa izan da aztertu dugun hamarkadan. Hamar urte lehenago baino 95.461 euskaldun eta 109.651 ia-euskaldun gehiago zeuden 1991an.
- 3.- Euskaldun eta ia-euskaldun alfabetatuen garapena dugu bi multzo horietako motorrik bizkorrena. Euskaldunen %68 eta ia-euskaldunen %64 «euskaldun alfabetatuak» dira.
- 4.- Belaunaldi gazteenak dira hazkuntza horren eragile. Erdaldun elebakarrak %23raino jaitsi dira 1977 eta 1978an jaiotakoen artean.
- 5.- Gero eta gehiago dira, ama hizkuntza gaztelania duten euskaldunak eta ia-euskaldunak. Euskaldunetan %20 eta ia-euskaldunetan %87.
- 6.- Hamarkadaren bigarren epealdian (86-91) nagitu itxura dauka, biztanleria osoa oro har hartuta, euskaldunen eta ia-euskaldunen progresio abiadak. Adin-taldeak hurbilagotik aztertuz gero ez dago horrelakorik 5 eta 19 urte bitarteko euskaldunetan (Taula 8), ezta ere 15 urtetik 49ra arteko ia-euskaldun gehienetan (Taula 9).

Jose M^a Agirre Eskisabel
Eustat-eko (Euskal Estatistika Erakundea)
zuzendari nagusia

General Director of Eustat (Basque Statistics Entity)